



**HEZKUNTZA
ESKAINTZA
2019-20 IKASTURTEA**



“...zein pentsamenduk pentsatzen dituzte pentsamenduak? Zein irudik marrazten dituzte irudiak? Zein istoriok egiten dituzte munduak eta zein munduk kontaktzen dituzte istorioak? (Haraway 2016,12).

Uharte Zentroak arreta berezia jartzen du hezkuntza komunitatea eta komunitate artistikoa lotzeko aukera ematen duten prozesuak sortzean, jardun eraldatzaile batetik, esploratzeko dauden heziketa aukera berriak bilatu eta abiaraztea dakarren alorretik.

Asmo horrekin estreinatzen dugu hezkuntza eskaintza berria. Bertan, jada lehendik gauzatzen ari ginen irakaskuntza prestakuntza proposamenak, hala nola **VACA Proiektua**, ikasgelekin edo eskolekin ekintza zuzenak egiteko proposamen berriekin konbinatzen ditugu: **“A3”** eta **“Eskola Lurralde”**, edo irakasleen prestakuntza saioak ditugu.

A3

Hezkuntza formalaren barneko edozein hezkuntza mailalara zabalik dagoen deialdi bat da. Haren bidez lortu nahi da toki bateko hezkuntza arloaren eta arlo artistikoaren arteko ezagutza trukea sortzea, biak ala biak aberasteko bidea emango duena.

Gure lurraldearekin etengabeko harremanean dagoen sorkuntza, ekoizpen eta esperientziaz zentro moduan, ahalbidetu nahi dugu hezkuntza proiektuak sortzea eskolekin, tokiko artistekin lankidetzan arituta.

NORENTZAT

Ondokoa lortu nahi duten Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat:

- beren curriculum edukiei begirada bat ematea arte garaikidetik;
- esperientzia estetiko bat bizitzea, erakunde artistiko batekin elkarlanean;
- ezagutzara hurbiltzeko eta hura eraikitzeko beste modu batzuk ikertzea.

ZER ESKAINTZEN DA?

Bi proposamenen artean aukeratu ahal izango da edo proiektu propio baten zirriborroa aurkeztu ahal izango da, hau onartu aurretik Uharteko hezkuntza-taldeak ebaluatuko du.

HAUR HEZKUNTZA – LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA

1. Beste sorgin batzuk eta botere pertsonalak. Paula Duróren margoen bidez, latinoameriketako kulturetako sorginen inguruan pentsatuko dugu eta “Quitapenas” panpinak sortuko ditugu.

2. Zer ikasi dezakegu bere habia egiten ari den txori batekin edo armiarma-sarea josten ari den armiarmaz? Andy Goldsworthyren praktikatik abiatuko gara naturaren elementuek eskaintzen dituzten sormen aukerak aztertzeko. Pigmentu naturalak erabiliz margoak egiten ditugu eta eskola inguruko lorategietan eskuhartzeak.

LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ETA 3. ZIKLOAK

1. Zer dira mugak? Mugen aldaketaren inguruan hausnartuko dugu, bai eta muga mota desberdinen inguruan eta hauen eragin geopolitikoan. Mugak abiapuntu hartuta, kontakizun desberdinak asmatuko ditugu laburmetrai bihurtzeko.

2. Muraila handia. Txina bezalako urruneko lurraldeak ezagutzeko, desberdintzen gaituzten gauzei so egiten diegu. Begira diezaiozun orain urruntzen gaituzten gauzei beharrean gerturatzen gaituzten gauzei. Zer dugu komunean? Ai Wei Wei artista txinatarrak bezala, gure herriko harresi handia berregingo dugu pentsatzeko, marrazkiaren esku-hartzetik hasita zein dira ni eta bestearen arteko mugak eta zubiak?

BIGARREN HEZKUNTZA

1. Nola egiten da artelan kolektibo bat? Hilotz dotore surrealista, poema dadaista eta Dennis Oppenheimen marrazkiak bezalako estrategia desberdinak erabiliko ditugu kolektiboki sortzeko helburuarekin. Animazioaren munduan sartuko gara eta stop-motionak egiteko set txiki bat sortuko dugu gure lanak biziarazteko.

2. 1968. Gure inguruko 1968. Urteko irudiak aztertuko ditugu Pariseko edo Woodstockeko errealitateekin konparatzeko. Post-fotografiaz ariko gara eta collage lanak egingo ditugu “Zikinbrillista” manifestuaren aholkuak jarraituz. Hausnarketak egingen ditugu emakumearen paperaren inguruan, kulturartekotasunaren inguruan, ingurumena eta egungo eta lehengo gizartearen drogen erabileraren inguruan.

Talde bakoitzeko 4 lan-saio hartzen dituen proiektu bat da.

- Aurreneko saioa irakaslearen eta Uharte Zentroko hezitzailearen arteko bilera bat da. Zehazki, proiektuaren helburu zehatzak eta hurrengo saioak egiteko egunak ezarriko dira bileran.
- Ikasgelan saio bat egingo da, Uharte Zentroko hezitzailearen kontu. Gaiaren, proposamenaren edo prozesuaren sarrera egingo zaie ikasleei, irudien irakurketaren, ekintza bat egitearen edo tailer txiki baten bidez.
- Saio bat egingo da Uharte Zentroan, proiektu zehatzerako aukeratutako tokiko artista baten kontu.
- Azken saioa ikasgelan egingo da, eta bertan, kasu bakoitzaren arabera, taldeak proiektuari jarraipena ematea edo ez planteatuko da.

IZENA EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izena emateko epea: 2019ko irailaren 2tik 20ra.

Ikasturte bakoitzeko, gehienez ere, 30 talde hartuko dira.

Hautaketa hurrengo irizpideen arabera egingo da:

- Izena emateko ordena eta formularioa zuzen betetzearen arabera.
- Aurreko deialdian, 2017-18koan, parte hartu EZ zuten ikastetxeek izango dute lehentasuna.
- Ezin izango du ikastetxe bakoitzeko maila bat baino gehiagok parte hartu.
- Ikastetxe bakoitzeko gehienez 4 talde onartuko dira.

Izena ematea Uharte Zentroko webgunean aurkitu daitekeen formularioaren bidez egin beharko da. <https://www.centrohuarte.es/eu/a3-2019-2020>

Argibide gehiago educacion@centrohuarte.es helbidean

Aurreko ikasturteko A3 proiektuak ikusi nahi badituzu:

<https://www.centrohuarte.es/eu/a3-hezkuntza-proiektua/>

Eskola Lurraldea

Nafarroako ikastetxeetarako deialdi bat da, hezkuntza berrikuntzako proiektu bat hautatu eta garatzeko, hartan, ikasturte batean, eskolaren eta lurraldearen arteko erlazioa jorratzeko.

Egungo deialdietarako oinarriak 2019ko apirilean atera ziren, eta “Burlatatik Burlatara ARTE” proiektu irabazlea (Colegio Amor de Dios-Regina Pacis Ikastetxea -ak egina) 2018-19 ikasturtean ezarriko da, bigarren edizio honetan.

Hurrengo deialdia 2020ko otsaila-martxoan aterako da.

NORENTZAT

Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza zentroetarako. Hain zuzen ere, kasu hauetakoren batean dauden 3 irakasle edo gehiagoko lan-talde bati egiten zaio proposamena:

- Haur edo Lehen Hezkuntzako ziklo bereko irakasleak edo Bigarren Hezkuntzako sail didaktiko bereko irakasleak.
- Ikastetxe bereko irakasleek eraturako diziplina anitzetako taldea.
- Ikastetxe desberdinetako irakasleek eraturako talde bat.

ZER ESKAINTZEN DA?

Uharte Zentroak giza baliabideak, teknikoak eta materialak jarriko ditu (3.000 euroko balioa dutenak) hautatutako proiektuaren esku, garatu ahal izateko.

IZENA EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izena 2020ko otsailaren 20tik aitzina eman beharko da (deialdi berriaren oinarriak data horretan ateratzeko asmoa dago), gure webgunean egongo den formularioa betez.

Aurreko urteko bideoak kontsultatzeko:

<https://vimeo.com/centrohuarte>

GORDINA (VACA Proiektua VIII)

Vaca Proiektua heziketa proiektu bat da, Bitartean.arte y educación elkartearekin elkarlanean garatua. Bertan, elkarrekin ikasteko eta hezkuntza komunitatearen barnean sareak sortzeko gune bat sortzen dugu. Arte garaikidea hartzen dugu abiapuntu, irakaskuntzako lana garatzeko edo hartan aurrera egiteko balio diguten prozesu batzuk eraikitzekeo tresna den heinean, ikasgelan proiektu artistikoak garatuta, gure tutoretzarekin.

Edizio hau, sorkuntza garaikidearekin erlazionatzen gaituen lan-ardatz gisa, gorputzetik abiatuko da. Gorputza ematea, gorputza izatea, askotariko kidegoa, partekatua, zatikatua ... Batez ere, irakasleen eta ikasleen gorputz-presentzian eragina izango dugu, eta ikasteko leku eta tresna gisa. VACA gorpuztuko dugu.

NORI ZUZENDUA

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta irakaskuntza ez formaleko irakasleentzat, hau lortu nahi dutenentzat:

- Curriculum hedatzea artea ikasgeletara gerturatuta prozesu, eduki eta formatu moduan;
- Prestakuntzako beharren eta interesen gune katalizatzaile bat sortzea taldean;
- Esperientzia estetiko bat bizitzea, erakunde artistiko batekin elkarlanean;
- Hezkuntzako lanaren garrantzia nabarmentzea, ikasgelatik harago doan kultura ekoizle gisa;
- Ezagutzara hurbiltzeko eta hura eraikitzekeo beste modu batzuk ikertzea.

ZER ESKAINTZEN DA?

Proiektu esperimental da arteen didaktikaren esparruan gure komunitatean, elkarri estu lotuta dauden bi testuingurutan garatzen dena, ikasturtean, urri eta ekain artean:

- Uhartea Zentroan sei saio egiten dira, irakasleekin eta gonbidatuekin batera (artistak, erakusketen komisarioak...), eta haietan alderdi jakin batzuen gaineko prestakuntza hartzen dugu, erreferente artistikoak ematen ditugu, arazoak planteatzen ditugu eta tresna berriak sortzen ditugu.

- Ikasgeletan, irakasle bakoitzak, bere ikasleekin edo hezkuntza komunitatearekin batera, arte proiektu bat garatzen du, ikusizko kulturarekin eta arte garaikidearekin lotuta.

Bitartean elkarteko hezitzaile bat prozesu horren tutorea da, eta ikusizko erreferentia eman edo ikasgelan une jakin batean laguntza eman ahal izango du.

- Era berean, une zehatz batzuetan, artista batek esku hartuta lagundu dezake ikasgelako prozesua, dela tailer bat planteatuta, dela aholkularitza tekniko emanda.

Irakasleei Laguntzeko Zentroaren etengabeko prestakuntza eskaintzaren barnean dago.

IZENA EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izena emateko epea: 2019ko irailaren 17tik urriaren 10era.

Izena ematea bi modu hauetan egin behar da:

- Hezkuntza formaleko ikastetxe bateko irakaslea izanez gero, Irakasleei Laguntzeko Zentroaren bidez egin behar da.

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/inscripciones-2/>

- Talde sozial bateko hezitzailea izanez gero, mezu elektronikoa bidali behar da educacion@centrohuarte.es helbidera.

Irakasleendako ikastaroak. Hezkuntza artistikorako teknikak eta teoria.

Ikasturtean zehar, bi prestakuntza tailer eskainiko ditugu irakasleentzat, ILZarekin elkarlanean.

“Flower Power: pedagogia feministatik abiatuz arte garaikidearekin egiteko gauzak”

NORENTZAT

Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako nahiz hezkuntza ez formaleko irakasle diren eta hauetan interesa dutenei zuzendua:

- Pentsamendu eta praktika queer/feministaren (eta ildo pragmatikoaren) gogoeta teoriko eta esperientzia batzuetan era holistikoan barneratzea.
- Gogoeta eta esperientzia horiek hezkuntza-munduarekin lotzea, esparru instituzionaletik irakaskuntza praktikalaino bertaraino eta eguneroko bizitaraino.
- Saioetan bizi izaniko ikaskuntzak era sortzailean eta kontzientean biltzea, hala banaka nola taldeka, etorkizuneko ikaskuntzak sendotzeko.

GIDARIA

Lander Calvelhe, hezkuntza artistikoan doktorea.

ZER ESKAINTZEN DA?

Tailerrean 4 saio dira, urriak 14, 15, 21 eta 22an 17:00etatik 20:00etara, Uharte Zentroan.

Ikuspegi feministek, queer eta pragmatistak, ohiko lekuetatik eta erronka berrietatik behatzeko aukera ematen dute, horrela, heziketa-ekintza sortzaileak eta ludikoak hartzeko, eta, aldi berean, balioetan eta bizikidetzaren printzipioetan aberatsak dira. Ikastaroa teoriko-praktikoa izango da, eta artista garaikideen lanetik abiatuko da, eta baliabide teorikoak, teknikoak eta prozesualak aterako ditugu, gure egungo irakaskuntzan lagunduko digutenak.

Mintegi bizigarri eta gogoetatsu bat, hainbat potentzialtasun bateratzea bilatzen duena – Artearen, feminismoen, hezkuntzaren eta pertsona bakoitzaren artean –, eta, aldi berean, dena jokoan jarriko dugu ahalik eta ikaskuntzak hobeto garatzeko eta, bitartean, ahalik eta hobekien pasatzeko, bai eta bien bitartean ere.

Proposatutako helburuekin bat etorriz, garatu beharreko metodologia anitza izango da: irakurketa labur eta ludikoen bidez, hainbat gai historikoren eta gogoetatsuen aurkezpena egingo da, eta bakarkako lana egingo da, irakaskuntzako praktiken berrikuspena eginez, beti ere, bateratzearen eta elkarrizketaren aldeko apustua eginez.

IZENA EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izena emateko epea: 2019ko irailaren 15tik 19ra.

Izena ematea bi modu hauetan egin behar da:

- Hezkuntza formaleko ikastetxe bateko irakaslea izanez gero, Irakasleei Laguntzeko Zentroaren bidez egin behar da.

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/inscripciones-2/>

- Talde sozial bateko hezitzailea izanez gero, mezu elektronikoa bidali behar da educacion@centrohuarte.es helbidera.

“Etxeko bideoklip bat nola egin”

NORENTZAT

Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako nahiz hezkuntza ez formaleko irakasle interesatuentzat, honako edukiak jorratzeko:

- Modu ulergarrian multimedia sorkuntzako teknikak eta hauek gelan aplikatzeko adierazpen-aukerak ezagutzea.

- Sormenera inprobisaziotik hurbiltzea, esperientazio-prozesu desberdinen bidez, DIY filosofia erabiliz eta gutxieneko baliabideekin [Low-Tech].

- Ikus-entzunezko sorkuntzan erreferente/eragin gisa balio duten beste artista batzuen gustuak, joerak eta lanak partekatzea.

- Euskarri tekniko guztia eskainiko da, bai softwarearen, bai errodaje-baliabideen inguruan.

- Sorkuntza-esperientzia bat sortzea ikasgelako hezkuntza-prozesuan.

GIDARIA

Beatriz Sánchez, ikusizko artista eta Arte digitaletan masterra.

ZER ESKAINTZEN DA?

Tailerrean 4 saio dira, aurrez aurrekoak. Honatx egunak: martxoak 9, 10, 11 eta 12, 17:00etatik 20:00etara, Uharte Zentroan.

8

Tailer praktikoa da, bertan zuzeneko bideoak garatuko ditugu, baliabide minimoekin, eta teknologia edo software konplexurik erabili gabe. Esperientzia guztia berehalakoa izango da, sormenezkoa, baliabide gutxi beharko ditu. Webcam baten bidez eta ikastaroan parte hartuko duten material erraz batzuen bidez (aldizkariak, guraizeak, arkatza, koloretako kartulinak, mulzak, etab.), ikasleek beren historia edo historia ez-historia eraikitzen dute. Edozein curriculum-eduki modu dibertigarrian lantzeko hezkuntza-tresna izan daitekeen teknika.

Gehienez 20 lagun.

IZENA EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izena emateko epea: 2019ko urtarriletik aitzina

Izena ematea bi modu hauetan egin behar da:

- Hezkuntza formaleko ikastetxe bateko irakaslea izanez gero, Irakasleei Laguntzeko Zentroaren bidez egin behar da.

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/inscripciones-2/>

- Talde sozial bateko hezitzailea izanez gero, mezu elektroni koa bidali behar da educacion@centrohuarte.es helbidera.



||
Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

Calvario, 2. 31620
Uharteko Huarte | Nafarroa Navarra
t. 948 361 457 | centrohuarte.es

Finantziatua / Financiado por

